

Abenduaren 3ean, Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, Udal Talde hauek adierazpen instituzional bat sinatu dute: Irungo Sozialistak, EAJ-PNV, Irungo Bildu Udal Taldea eta Ezker Batua-Berdeak.

"EUSKARA, DENON HIZKUNTZA"

Euskal hizkuntzaren unibertsaltasuna aitortzeko helburuarekin abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da eta Irungo Udaleko bozeramaileen batzordeak hau baliatu nahi du, Irungo jendarteari adierazpen hau helarazteko:

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko eta aldarrikatzeko eguna da. Ospatzeko euskararen gizarte erakundeek, euskaltzaleek eta erakunde publikoek lan eskerga egin dugulako euskararen normalizazioan azken hamarkadetan eta hizkuntza asko ez bezala bizirik iritsi delako gaur egunera.

Alta, euskara bizirik egon arren, osasunetik urrun dagoela. UNESCOk berak hizkuntza ahulen zerrendan jarri du euskara eta euskara normalizaziotik urrun dago oraindik.

Beraz, Euskararen Nazioarteko Eguna euskararen normalizazioa beharra gogorarazteko eguna da batez ere, hau da, irundar guztiontzat eguneroko arlo denetan euskara ohiko hizkuntza izan dadila aldarrikatzea.

Horregatik, honako hauek adierazten ditugu:

- **Lehenengoa:** euskara irundar guztion ondare komuna dela aitortzen dugu.
- **Bigarrena:** uste dugu euskarak biziraungo duela bere erabilera indartzen den neurrian.
- **Hirugarrena:** euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko denon adostasuna ezinbestekoa dela sinistuta gaude.
- **Laugarrena:** halaber, euskara gizarte kohesio indartzen duen tresna dela uste dugu.

Euskara, denon hizkuntza

Euskara da Irungo herriaren eta herritar guztion ondarea eta bere kulturaren osagarri bereizi ezina. Munduko hizkuntza guztiak bezalaxe gizadi osoaren ondare ere bada. Horregatik, hizkuntzen dibertsitatea babestu nahi badugu, beharrezkoa dugu gurean euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea.

Eleanitza den Irunen euskarak dagokion espazioa berreskuratu behar du eta errealitate horri modu egokian erantzun behar zaio Irungo Udaletik eta udala osatzen dugun talde politiko guztietatik.

Euskararen erabilera ezinbestekoa

Irundarrok euskaraz hitz egin dugulako bizi da euskara eta biziraungo du aurrerantzean etxean, kalean, lanean, aisian eta edonon erabiltzen bada. Horretarako, herritarron gogoia indartu, euskaraz bizitzeko jarrerak sustatu eta euskararen erabilera kalera eramateko ekimenak bultzatu eta babestu nahi ditugu.

Denon adostasuna

Euskara, hizkuntza modernoa dugu, gaurkoa eta gaurkotua, gure egungo gizarteak erabiltzen jarraitu nahi duena, eta, gizartearen alor guztietan, gero eta aitortza handiagoa jasotzen ari dena. Irunen euskararen ezagutza eta erabileran aurrerapauso sendoak eman dira.

Indarberritze sendo horrek ikuspegi ezberdinen arteko adostasuna du oinarri eta adostasuna lortzeko nahitaezkoak izan dira guztien borondatea eta elkar aditzeko jarrera irekia.

Euskara, gizarte kohesioa indartzen duen tresna bat da

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzean euskararen orainari eta etorkizunari leiho zabal bat irekitzen diogu, eleaniztasunak gure bizikidetzan eta gizarte-kohesioan izan dezakeen eragin onuragarriaz konbentziturik.

Irungo Udalak eta berau osatzen dugun talde politikook erantzukizun zuzena dugu udal hizkuntz politikaren kudeaketan. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu Udalaren tresna nagusiak ? euskararen udal ordenantza, udal barruko zein udalerriko planak eta aurrekontuak ? eraginkortasunez baliatu eta profitatzea, hizkuntzaren normalkuntza lortzeko bidean.

Langintza horretan ezinbestekoa da, alde batetik, hizkuntza politikako ekimenak inplementatzea eta, bestetik, herritarrak aktibatzea. Norabide horretan Irungo Udalak ondorengo konpromisoak hartu nahi ditu:

- Guztion hizkuntza eskubideak bermatuko ditugu, eta euskara udal administrazioko enplegatuen lan hizkuntza izateaz gain eta hiritarrei begira zerbitzu hizkuntza bihurtzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Espazio sozial euskaldunak bultzatu eta indartzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Udalaren kontratazio publiko eta lehiaketa guztietan hizkuntza-irizpideak inplementatzeko konpromisoa hartzen dugu, bereziki erlazio eta elementu komunikatiboetan.
- Euskararen ezagutza handitzea eta udalerrian unibertsalizatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Herriko euskararen aldeko puntu komune bilgune zabalak ?euskalgintza, eragileak, sektore desberdinerako erakundeak, udala ? sortzen eta gorpuzten laguntzeko konpromisoa hartzen dugu.

Udalaren helburua da gure herrian euskara izatea harremanetarako eta bizitza sozialerako hizkuntza eta horretarako euskaraz jakitea ez da aski bizi dadin, hitz egin behar da.

Horregatik, Irungo Udalak herritarrak honakoak egitera gonbidatzen ditu:

1. Euskara dakienak edonon, edonorekin eta edonoiz erabilitzea
2. Euskara ez dakienak, euskara ikasteko erabakia har dezala
3. Erdipurdi dakienak, euskara erabiliz, hobetu dezala.

Azkenik, Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan antolatuko diren ekimenetan herritarrak parte hartzera animatzen ditugu.